



Eman hegoak euskarari



Maitasunaren alde biak

Ramon Saizarbitoriak baino zeinek hobeto landu ditu euskarazko literaturan gizon eta emakumeen arteko loturak? Zeinek sakondu du harreman horien konplexutasunean?

JON KORTAZAR



Sedukzio' hitza begiratu dut hiztegian. Eta ez dator: 'Orotariko'an ez behintzat. Haren ordez aurkitu ditut 'lilura', 'zoramen', 'xarma', 'erakargarritasuna' hitzak, eta 'limurtze' ere bai. Hiztegietan «sedukzio artea» badator: 'Lilura'k badu agerpen zabala XX. mendean, eta Lauaxetaren bertsoak ekarri ditzakegu hona: «Bekoki onek dargerren maitasunezko lilura/ ezin illundu dagike erijotzaren lazta-nak».

Hiztegietatik literaturara salto egiten badut, bat-batean eta zalantzarik gabe, izen bat datorkit gogora: Ramon Saizarbitoria. Donostiako idazleak baino zeinek hobeto landu ditu euskarazko literaturan gizon eta emakumeen arteko loturak? Zeinek sakondu du harreman horien konplexutasunean? Zeinek jarri ditu orrialdeetan haien arteko hainbatetako lotura eta zenbaitetako tortura?

Martutene

Gustave Flaubertek inoiz esan ez omen zuen «Madame Bovary neu naiz» haren antzera esan dezake Ramon Saizarbitoriak ere «Martutene, c'est moi», eta ziurrenik, inoiz esan ez badu ere, sinetsiko genioke esaldia, eta ez soilik 'Martutene' nobelan ageri den Martin idazlea autorearen 'alter ego'a delako, askotan aipatu izan den bezala, baizik eta egilearen antza nobelak eraikitzen duen mundu oso horren sorreran dagoelako. Martin izango da Saizarbitoria-aren itzal garbia, baina 'Martutene'ko soziologia da Ramon Saizarbitoria. Han dira gizarteari buruzko bere ikuspegiak: gerratean, zinikoki eta zikoitz, aberastu ziren euskaldunak, gure borrokaldian zalantzarik ageri zirenak, alde egon zirenak, eta konta egin zutenak edo bizi minez bizi izan zutenak, eta idazlearen gustu berak dituen Abaitua ere, neurri batean Saizarbitoria bera dira. 'Martutene' egilearen mundu ikuskerada da, eta literaturari zein gizarteari buruzko egilearen iritziak daude han loturik, asmoak, ametsak, obsesioak, gustuak, bizipenak. Eta iritzi batzuk, literarioak adibidez, pertsonaia jakinak gorpuztu dituzte, Martinek eta Juliak, eta ikuskera batzuk, demagun gizarteari buruzkoak, beste batzuen gain jarri dira.

Abaitua da bizibide gozo eta hedonista bateko erakusgarri, eta nok ez du gogoan zortzigarren kapitulua, Lynn amerikarra seduzitzen duen gaua. Edo Lynnek bera, zeren neskata da Abaituaren gelara doana. Bordelerainoko bidaia egin dute Kepa lagun



ACCÉSIT 'Arpas eólicas: la presencia póstuma del sonido'

Por Pama Canoles Hapette

¿Es seductor el canto del viento que nos abraza, nos toca y nos provoca constantemente? El sonido también puede acariciarnos.

dutela. «Ostatu hartu duten hotel bereko brasserien afaldu dute». Bidaia, jakiak, edari on batzuk, dastatzeko erak, janariari buruzko estimazioak, elkarriketa hobeak, giro ederra elkarren xarma adierazteko.

Miren eta Kandynski

Ramon Saizarbitoriak jarraitu du ezagutzen ez omen duen emaku-

meen izaera aztertzen, «gazteentzako zerbait egin beharra» sentitzen zuen artean. Eta badira lan bi bere ibilbidean hain zuzen ere, neskatek sexuan duten hasiera aztertzen dutenak. 'Miren eta erromantizismoa' nobela gutxietsian, Miren da Said bere mutil laguna seduzitzen duena. Miren da, Abaituaren irudiari jarraituz, «Izokin ketua, itsas kabra budina, entsalada errusiarra, eta 'gâteau basque' gereziduna» erosten dituen harekin afaria egiteko. Hori da menua, bai, baina horretaz gain «paperezko ezpainzapiak erosi zituen eta kandela klasikoak» afariari giro gozoa eman nahiz, hura seduzitzeko asmoarekin.

Saizarbitoriak gustu frantses eta bizi maitearen irudia eman du, eta jada Jon Benitoren pertsonaia batek «Saizarbitoria-aren protagonista» gisa ikusten du bere burua. Irudi 'bon vivant' horren aurkako da, baina, 'Kandinskiren

Hiztegietatik literaturara salto egiten badut, bat-batean eta zalantzarik gabe, Donostiako idazlearen izena datorkit gogora

Tradizioa' nobelako Miren. Bere lehen esperientzia sexuarean ez dago xarmarik. Gezurtia du bere maitalea, eta lehen amodio lotura Irritzi hotelean gertatu da, «Ezagutzen ez duenarentzat esan dezadan errepidetako hotel horietako bat dela». Giro horretan, eta hotzaren menpe, esperientziak ez du poz handirik ematen.

L. A. A. xarmaren iluna

Ikusi dugu, sedukzio guztiak ez dira garbiak. Nire iritzi, ez nahi-

ko ez ongi irakurri ez den Maixa Zugastiren 'L.A.A.' nobelan bada-goz sedukzio toxiko baten agerpena. Giza harremanak izan behar ez diren moduen agerbidea. Pena ematen du ikusteak nobela horrek zein oihartzun gutxi izan duen.

Ez dakit guztiz sinesgarria den fikzioan, baina egileak, Maixa Zugastik, behin eta berriro esan du benetako gertakizun batean oinarriturik dagoela historia. Sinesgarria dela guztiz.

Bada kontakizunean tratu txarrek egitearren kondena duen protagonistak kartzelako psikologoa seduzitzen du tratu txarren historia berriz hasteko, jira eta bira zoro eta ezin loturiko bidaian.

Xarmak badu bere iluntasuna. Eta nobela hori frogatzen gupidarik gabea da, erromantizismoaren atzean dagoen iluntasunean murgiltzeko irakurlea. Maitasunak alde bi baititu: lausoa eta iluna, hegoa eta iparra. Poza eta mina.